



**ANA MENDIA**  
EMAGINA

## Pareko eraikina

**E**rditze-gelatik zaharretxea ikusten da parez pare. Aurrekoan jabetu nintzen lehenengoz, ze leihora hurbiltzen naizen aldiro Irimoko tontorrari begiratu ohi diot eta ia ohartu gabe nintzen bizitzaren hasiera eta bukaera nola dauden aurrez aurre. Agian, konfinamenduan zehar, amaren bularrari goxo-goxo tiraka ari zaion jaioberriari artilezko galtzerdiak ehundu dizkio birramonak pareko eraikin horretan. Batek daki.

Ez dakit pandemia garaian munduratuakoei zer kontatuko ote dieten eskolan; nortzuen letrek idatzitako historia ikasareziko dieten institutuan. Nolanahi ere, nekez ulertuko dute SARS-CoV-2 delakoak piztu duen zalaparta mikroskopio bati begira. Agente infekzioso txiki horrek ederki asko azaleratu du zenbateraino den ezinezkoa errealitatea fisiko-biologikora mugatzea. Koronabirusak azkar batean larrugorritu ditu erdi-estalitako arrakala sozio-ekonomiko guztiak eta nire amona serio mintzatu zait: zahartzaroa oso gauza txarra da.

Amonak arrazoi du: oso gauza txarra da zahartzaroa. Ez da existitzen testuingururik gabeko prozesu biologikorik eta asfaltoa ez dugu esku zimelentzat eraiki; areago, eraikinak jaso behar izan ditugu ordainetan. Ontogeniaren antipodetan ere antzera; kasurako, larrialdi global honetan hegazkin-istripuetako logika-

ri eutsi diogu: jar dezala helduak oxigeno-maskara lehenbizi eta jar diezaiola haurrari ondoren. Kontua da kolpea ez genuela hegan gindoazela jaso. Kontua da haurrek ordaindu dituztela helduon maskarak. Kontua da ez garela zaintza zaintzen ari.

Akordatu naiz konferentzia batean entzun nuela egungo familia nuklearrak eta haurrak hezteko dugun era anomalia sozial gisa estudiatuko dituztela etorkizunean. Akaso zuzena da teoria eta sareak zuloz josita daude; akaso banatuegi bizi gara etxealditik kanpo ere. Akaso esatera afrikarra egia borobila da eta “haur bat hezteko tribu osoa behar da”. Akaso kolektibitateari dei egin dion honetan agerian geratu da triburik ez dugula.

Nago konferentzia hartako hizlariak ez ezik, amonak ere baduela antzeko errezeloa. Izan ere, lehengoan, bere etxetik irtetear nengoela, atea itxi baino segundo erdi lehenago, besaulkitik bota zidan ilobagatik: “ta zaindu ondo ttikie”. Amonak primeran daki zer den premiazkoa.

Pareko eraikinetik ezin irten artilezko galtzerdiak ehuntzen imajinatu dut bapo eginda lokartzen ari den jaioberriaren birramona. Gorka Urbizuren ahotsa irratia-riaren bestaldetik korridorea girozten: “Egunen batian, ateri denian, euriaz ariko gara”. ●



**CASTILLO SUAREZ**  
IDAZLEA

## Galdutako hitzorduez

**H**edoi Etxartek behin baino gehiagotan egin du galdera eta ez dio inork erantzun: zenbat hitzordu geratu dira bertan behera COVID-19aren eraginez ospitale eta osasun etxeetan? Inguruan galdetuta sumatu dezakegu asko izan direla egin ez diren probak eta ebakuntzak. Luzamenduak ekarri du hainbaten osasun egoera markurtzea, areago, hitzorduak noiz jarriko horren zain, askoren ezinegona handitu da. Onintza Enbeitak aipatzen zuen bere ustez batzuek koronabirusa ezer esan gabe pairatu dutela, lotsaz, gaitz

horrek ekarri duen estigmarengatik. Beharbada bai. Eta iruditzen zait hori eta beste gaitz batzuk isildu dituztela batzuek kontsultategian txanda ez eskatzeagatik. Kutsatzearen beldurrez. Beldurra. Zenbat aldiz aipatu eta sentitu dugu egunotan. Gaitzari eta kutsatzeari, baina nik beste adiera bat gehituko nioke: bakardadeari beldurra, eta ez bakarrik hiltzeari soilik, ohartu gare-lako bakarrik egon garela geure buruarekin, etxean jendea eduki dugun arren. Eta ez dago nork bere buruari dion beldurra baino gauza ankerragorik. ●